

Denboraren makina  
America's  
Cup

□ Ezpalak  
□ Argitalpenak

□ Denbora-pasak  
□ Makina bat kontu

Thesi  
Pasaiatik  
Hondarribira

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

# Lluís Pasqual

## Arriaga Antzokiko arte-aholkularia



Lluís Pasqual Reusen jaio zen, Katalunian. Bizi, berriz, “hor zehar” bizi da. “Antzerkian gabiltzanok nomadak gara”, dio. Gaur egun, Bartzelonan ditu “liburuak eta galtzerdiak”, baina hara eta hona ibiltzen da etengabe, gustura, aireportuak eta hotelak maite dituela aldarrikatzen baitu. Azken urte eta erdian, Bilbo izan du hegaldi askoren helmuga nahiz abiapuntu, denbora hori baita Pasqual Arriaga Antzokiko arte aholkularia dela. Zer den hori? Hurrengo orrialdeetan ikusiko duzue.

UNAI BREA  
IÑIGO AZKONA



# «Ikusleek ez dakite zer nahi duten; ustekabeak nahi dituzte»

**Arriaga ez da zure lantoki bakarra, eszena zuzendaria ere bazara...**

Halaxe naiz, eta hori da nire lanbide nagusia orain.

**Arte aholkularia irakur daiteke Arriagan daukazun bulegoko errotuluan...**

Izenen bat ipini behar zen, eta hori ipini genion.

**Baina hori da zure lana hemen, aholku ematea?**

Hara, bai. Nola edo hala, onuraren bat ekarri behar dio Arriagari nik hainbeste antzoki zuzendu izanak. Egoerak errepikatu egiten dira, eta aritu denak ezagutu egiten ditu egoera horiek; hori omen da eskarmentua. Ni hemen inguruan ibiltzen naiz, gauzei begira. Badaukat ohitura bitxi bat: egunero, antzokira sartzen naizenean, aretoa ikustera joan beharra daukat lehenbizi, norbaitek lapurtu ahal izango balu bezala edo. Eta gero, normalean, komunetako batera joaten naiz, ea paper nahikoa dagoen. Mania hori antzokizuzendari izatetik jaso dudan uztaren zati bat

da. Eta noizean behin, aholkuren bat edo beste ematen dut.

**Inork eskatuta, ala zeure kabuz?**

Etengabeko hartu-eman da. Ezinbestean, antzezlan bat iragartzen duen errotuluaren aurretik pasa eta esaten duzu: 'Hobe litzateke beste leku batean jartzea, handik ez da-eta ondo ikusten'. Lan hau xehetasun txikiz beteta dago. Emanaldiez ere hitz egiten dugu noski, ea zergatik etorri diren ikusleak, edo zergatik uste genuen ikusle asko etorriko zela eta ez den hala izan, zer nahi duten ikusleek...

**Eta zer nahi dute ikusleek?**

Eurek ere ez dakite. Horregatik da hain polita hau guztia. Matematika balitz, antzokiak mukuru edukiko genituzke beti, eta poltsikoak milioiz beteta. Baina hau ez da matematika. Programazioa jabetxe bateko karta bezala osatzen da. Sukaldariak erabaki egiten du zer jaki nahi duen prestatu egun bakoitzean. Gero, azokara doa eta berak nahi duena ez dago. Beraz, beste zer edo zer eskaini behar

du. Dena dela, ikusleek ez dakite zer nahi duten; ustekabeak nahi dituzte. Eta nolabait elika ditzatela, emozioak azalera atera diezazkietela, berdin poza zein negarra, edo bi horien artean dagoen besteren bat. Senak agintzen du. Pentsa ezazu, dena den, ez direla berdin Arriaga bezalako udal antzoki bat eta ekoizpen-antzoki bat. Guk erabaki dezakegu zer eman nahi dugun, eta merkatua behatu, ea halako ezaugarriak dauzkan lanen bat dagoen. Ez badago, ezin da eman, ezin dugulako geuk ekoitzi. Baina ikusleek ez dakite hori. Esan bezala, ez dakite zer nahi duten, baina ikusi ahala ezagutu egiten dute.

**Zeren bila dabiltzan ez dute jakingo beharbada baina, behintzat, antzerkia ikusi nahi dutela argi daukate?**

Nahi, nahi... Jendeak, oro har, etxetik irten nahi du. Batzuek antzerkia ikusteko, eta gehienek ez. Bestela antzoki gehiago legoke, eta horietan ikusle gehiago. Ez dago zertan pentsatu antzerkia jende kopuru handientzako artea dela. Niri gauza bakarrak sortzen dit atsekabea: inork, inoiz –gero eta gutxiago zoriez–, bere buruari ukatzea antzokira joateko aukera, horretarako prestakuntza berezia behar delakoan. Antzerkia denen eskura dago. Gustuko izan dezakezu ala ez, baina ez da egia

## Latinez hitz egitetik antzokiak zuzentzera

“Filologia katalana eta hispanikoa ikasi nuen, latin irakaslea izan nahi nuelako. Latinez hitz egiteko elkartzen zen talde bateko kidea nintzen. Uste dut oraindik segitzen dutela”. Hizkuntzalaritza guriak gorabehera, Lluís Pasqualek gazte-gaztetan ezarri zituen antzerkiari emandako bizitzaren oinarriak. Orduko egoera politikoa ez omen zion beste irtenbiderik eman: “Frankismoa zen, ezin inorekin elkartu, ezin inorekin hitz egin. Antzerkia aitzakia, elkartu egiten ginen behintzat, eta uste genuen *Godoten esperoan* antzez-tuz mundua aldatuko genuela. Hamabost urte neuzkan; nola ez nuen ba hala pentsatuko?”.

Bartzelonara iritsi eta unibertsitatean matrikula egiteaz batera, antzerki eskola batean sartu zen. Gero, ahotsa lantzeko eskolak ematen hasi zen hiriko auzo-konpainia batean. “Egun batez, lan bat zuzentzeko eskatu zidaten”. Zuzendu ez ezik, idatzi ere egin zuen; hiru astez ematekoa zen ikuskizuna, baina urtebete iraun zuen.

Pasqualek zuzendari modura jarraitu zuen, ondo dakigunez. Idazteari, berriz, berehala utzi zion, “esan nahi nituenak askoz hobeto esaten zituztelako beste batzuek”. Azkenik, antzokiak zuzentzen ere hasi zen, antzezlanen gain. Lan eskerga, dioenez, edonor akitzeko modukoa: “Ehunka lagun gidatu behar dituzu, batere ziurra ez den zerbait oinarri hartuta: arrakasta, alegia”. Bere buruari zaharregi irizita halako zamak eramateko, baztertua du dagoeneko antzoki-zuzendaritza, nahiz eta Arriagako aholkulari lanpostuari esker, harra elikatzerik daukan oraindik, nola edo hala.

**Sufagar**

Maiatzak 5 <b>ELTZIEGO</b> plaza nagusia	Ekainak 1 <b>LAS CARRERAS</b> plazan
Maiatzak 26 <b>BIARRITZ</b> L'Atabal-antzerki	Ekainak 24 <b>REUS</b> teatroan
	Ekainak 30 <b>SANTURTZI - KABIEZES</b> plazan

kontratazioa: 619116974      www.sufagar.com



antzokietako programazioa selektiboa denik. Egile handiak ez baitira, izan, selektiboak. Pentsa genezake asko irakurri behar dela Beckettentan lan bat ikusi ahal izateko lokartu gabe. Bada, ez da egia. Nik eman izan dut *Godoten esperoan* desalfabetizazio maila handia zegoen lekuetan, eta arrakasta handiz.

**Ikusleez ari garenean, gehiago zehaztu gabe, zertaz ari gara? Edo hobeto esanda, zenbatez? Hau da, Arriagako ikusleak jende kopuru zehatza dira, gutxi gorabehera beti berberak, edo Bilbo inguruan bizi diren ia milioia dira?**

Ez bata ez bestea, bien arteko zerbait baizik. Esan behar da, hori bai, ikusle multzoak eklektikoak direla. Alegia, zarzuela zaleen multzoak eta prosazko antzerki ikusleenak ez dute ia bat egiten. Pentsa liteke pertsona berak direla, baina ez. Oso talde desberdinak dira, eta biak oso fidelak.

**Bete ohi da Arriaga? Eta galderaren bigarren zatia: garrantzitsua da betetzea?**

Antzokiak ez dira gomazkoak, baina izan behar lukete. Esate baterako: orain gutxi eskaini da *Play Strindberg* lanaren lehen emanaldia. Antzezle onak eta ospetsuak ditu, eta ikusle dezente erakar ditzake. Baina Arriaga handiegia da lan horretarako. Gakoa, antzezlan horretan, pertsonaiak hurbiletik ikustea da, eta Arriaga ezin liteke. Izan ere, 300 ikusle inguru har ditzakeen antzoki batean sortua da *Play Strindberg*. Arriagari hori falta zaio; Espainian egiten diren ikuskizun gehienak, eta interesgarrienak, formatu txiki edo ertainekoak dira. Lau, bost antzezle. Eta Arriaga zezen plaza da, ikuskizun asko ezin daitezke ekarri. 300 ikuslerentzat sortua den lan bat ikustera 700 badatoz, Arriaga ez da bete zarzuela ikustera 1.300 lagun datozenean bezala,

## Antzerki asko, sendagileak eta errezetak

**Antzerki asko idazten da gaur egun?**

Askok. Bete idatzi izan da eta! Eta batez ere, ustez zerikusirik ez daukaten lanbideetan diharduen idazle mordo dago. Niri lan asko bidaltzen didate, eta lautik bat sendagile batek idatzitakoak dira. Tradizioa da hori; Txekhov sendagilea zen, besteak beste. Beraz, bai, antzezlan asko idazten da, baina baita nobela eta poesia asko ere.

**Hainbeste idazten bada, zerbait izango da ona...**

Bai. Baina antzezlan onak egoteko txar asko idatzi behar da. Antzerkiaren arazoa da eginda egon arte ez dakizula ona ala txarra den. Sukaldean bezala. Zuk errezeta bat irakurtzen duzuenan, errezetaren arabera jaki miresgarria presatuko duzu. Baina behin eginda... Gatz gehiegi bota badiozu, pikutara sukalkia. Eta ezin horretaz jabetu sukalkia eginda egon arte. Antzerkian berdin. Loteriaren antzekoa da: ez dakizu egokituko zaizun ala ez. Testu batzuek arrakasta lortzen dute, eta beste batzuek ez.

baina hori ez da inoren errua. Izatekotan, antzokiarena da. Dena dela, Arriagak ikusle kopuru politak izaten ditu.

**laz, Shakespearen *Hamlet* eta *Ekaitza*. Ezinbestekoa da lantzean behin klasikoak ematea? *Hamlet* eta *Ekaitza* bai. Badira belaunaldi guztietan antzeztu diren hamar edo hamabi antzezlan, hala behar du gainera. Belaunaldi bakoitzak bere modura egiten du, eta ondare hori uzten dio hurrengoari, hark guztiz modu desberdinean antzez dezan.**

**“Ikuskizun interesgarrienak formatu txiki edo ertainekoak dira. Lau bost antzezle. Eta Arriaga zezen plaza da, ikuskizun asko ezin daitezke ekarri”**

**Horrez gain, ikusleak etorriko direla segurtatzeko modua dira?**

*Ekaitza* antzezlan handia da, bikaina, eta *Hamlet*, berriz, munduko antzezlanik paradigmaticoena, erdukoena. Jendea beti etorriko da horiek ikustera. Ikusleengan bada alde kontserbadore bat: segurtasun apur bat edukiz gero errazagoa izango da etxetik irteeta. Tamalgarria da, baina nik ezin dut saihestu. Eta *Hamletek* segurtasun hori ematen die.

**Eta antzokiari, segurtasunik ematen al dio *Hamletek*? Diru-kontuez ari naiz oraintxe.**

Nire ustez, *Hamletek* ez dio inori bermerik ematen diru aldetik. Antzezle asko ditu, oso ekoizpen handia da, proba saio asko egin behar da... Diru publikorik ezean, ezin. Eta uste dut, aldi berean, antzoki publikoek emateko beharra dutela. Antzoki komertzial batek ez du inoiz *Hamlet* emango, ezin du. ■